

Irailaren 30ean  
**URTEAN ZEHARREKO 26. IGANDEA**

**Agurra**

Jauna zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Igandeko batzar santuak batasunean eratutako Elizaren ezaugarri izan behar du: Kristok bat nahi gaitu fedean eta karitatean. Hots egindako Hitzak eta zatitutako Ogi biziak bat egin gaitzala guztiok.

**Damu-otoitza**

Eska diezaiogun Kristori, barka dezala gure zatiketa eta bekatua:

—Jesus Jauna, Zu zara oker dabiltzanen bidea. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara ilunpetan dabiltzanen Egia. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara ezinean dabiltzanen bizia. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

**Otoitza**

**Jainko Jauna, barkatzen eta errukitzen  
agertzen duzu batez ere zeure ahalmen handia;  
isur ezazu gure gainera etengabe zeure grazia,  
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,  
zeruko zoriona iritsi dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren errukiak ez du mugarik, gainditu egiten ditu bai apostoluen elkarteak baita kristau elkarteak ere, gizon-emakume guztiengana iritsiz.

## Lehenengo irakurgaia (Zenb 11, 25-29)

Zenbakien liburutik

Egun haietan, jaitsi zen Jauna hodeian, eta Moisesi hitz egin zion: Eta harengan zegoen espiritutik hartu, eta hirurogeita hamar zaharrengan isuri zen. Eta espiritua haiengan kokatu orduko, profeta-hitza hots egiten hasi ziren. Gizon haietatik bi, Eldad eta Medad, txabolategian gelditu ziren. Aukeratuak izanagatik, ez ziren batzar txabolara joan; baina hauengan ere kokatu zen espiritua eta profeta-hitza hots egiten hasi siren txabolategian.

Mutil batek, Moisesengana lasterka jo, eta hala esan zion: «Eldad eta Medad profeta-hitza hots egiten ari dira txabolategian». Josuek, Nunen semeak, gartzetandik Moisesen morroi zenak, honela esan zuen: «Moises, ene jauna, debeka iezaiezu». Baina Moisesek erantzun: «Zergatik zure espa horiek nirekiko? Hobe litzateke Jaunaren herri osoa profeta balitz eta Jaunaren espiritua izango balu!»

## Erantzun-salmoa (Sal 18, 8 eta 10. 12-13. 14)



Zu - re hi-tzak, Jau - na, es - pi-ri-tu e - ta bi-zi di - ra.



Jaunaren legea bikain, barrena berpizteko,  
 Jaunak hots egina sendo, ezikasiak eskolatzeko.  
 Jaunaren beldurra garbi, iraugarri betikiko,  
 Jaunaren erabakiak egiazko, guztiak orobat bidezko. R/.



Zure morroi honek haietan du argi bizia,  
haiek gordetzen sari handia.

Nork erakutsi ditzake bere hutsak?

Garbi itzazu nire ezkutu geldituak. R/.

Harrokeriatik ere morroi hau gorde ezazu,  
ez dakidan nagusitu.

Orduan geldituko naiz bikain eta garbi  
gaitz handi horretatik. R/.

### Bigarren irakurgaia (St 5, 1-6)

Santiago Apostoluaren epistolatik

Zuek, aberatsok, egizue negar garrasi batean, gainera datozkizuen zoritxarrak direla eta. Zuen ondasunak ustelduta daude, eta zuen jantziak sitsak janda; zuen urre-zilarrak, herdoilak jota; eta horien herdoilak zuen kontrako testigantza egingo du eta suak bezala jango, zuen haragia. Azkenak diren egunotan pilatu duzue aberastasuna.

Zuen soroetan igitaian egin duten langileei eman ez diezuen lan saria deiadarka ari da; eta horien deiadarra iritsi da diren guztien Jaunaren belarritaraino. Lurrean beti asean bizi izan zarete, eta atseginkerian; harakintz egunerako gizendu zarete. Gizaki zuzena gaitzetsi duzue eta hil; eta Hark ez dizue gogor egiten.

### Aleluia (Ik. Jn 17, 17b. a)





Zure hitza, Jauna, egia da;  
santu egin gaitzazu egian. R/.

## Ebanjelioa (Mk 9, 38-48)

### Homiliarako argibideak

*Gure aurka ez dagoena gure alde dago*

Europako gobernuek, herritarrek berotuta, zalantzarik gabe, ez dute lortu errefuxiatuen inguruan sortu zaien arazoaren aurrean ados jartzea. Gure inguruan ere entzungo dugu, behar bada, tarteka, errefuxiatuen eta etorkinen aurkako komentarioik. Gure etsai bezala ez, baina lanpostuak kentzera eta gure ongizate kaskarra zapuztera datozen lehiatzaile gisa ageri zaizkigu. Hegoaldeko herrialdeetara joaten diren boluntarioek bakarrik ikusten dute guk krisi ekonomiko deitzen duguna kontsumo-gaitasunaren txikitzea besterik ez dela, herrialde horietako errealitatearekin alderatuta. Ideologiek erraz bihurtzen dituzte besteak arerio, ordea. Baita herrialde berekoak ere, gure iritzikoak ez badira edo bestelako politika bat babesten badute. Desberdina denaren aurkako **bazterkeria sintomen** agerleku errazak dira beti hauteskundeak. Bere egiaren babesle fanatiko modukoa bihurtzen da bakoitza.

Moisesen zerbitzarien edo Jesusen jarraitzaileen artean ere baziren horrelako fanatikoak, eta bai Moises eta bai Jesus urundu egin ziren haiengandik. Jainkoaren Espirituak nahi duen lekuan eta nahi duen moduan jokatzen duela konbentziturata egoteak bakarrik eraman gaitzake besteen aurrean **armagabetuta** agertzera.

Horixe egin zuen Moisesek etxolara joan ez eta kanpalekuan geratu

ziren zerrendako bi adinekoetan Espirituaren ekintzaz jabetu zenean (Nm 11,25-29). Horretarako, espiritu profetiko hori eduki behar dugu, aldian aldiko ezaugarriak irakurriz gure munduan Jainkoaren ekintza bereizten lagunduko diguna. Moisesen nahia -Jainkoaren herri guztia profeta izatea eta Jainkoaren espiritua hartzea- **Pentekoste** egunean bihurtu zen errealitate. Eliza komunitate guztia da karismatikoa eta ministeriala. Guztiok gara protagonista munduaren zerbitzuko Elizaren eraikuntzan.

Gure munduko fanatismoak bazterkeriaren teoria dute oinarri: gurekin ez dagoena gure aurka dago; gu bezalakoak ez direnak gure etsaiak dira. Jesusek, ordea, **inklusio printzipioa** formulatu zuen: gure aurka ez dagoena gure alde dago (Mk 9,37-47). Pertsonak zein taldetakoak diren baino gehiago horien jokabidea zein den begiratu behar dugu, jokabide askatzailea duten ongia egiten duelako, edo, alderantziz, besteei sufrimendua eragiten dien.

Erlijio bakar batek ere ez duenez egiaren monopolioa eta kideak bekatariak direnez, guztiok eman diezaiekegu besteei, eta haiengandik hartu. Besteei galderak egiten uztea dakar horrek. Ez erlijioei bakarrik, baita arrazoiari ere. Erljioak ezin diezaiekete errebelatutako euren formulei eutsi eta ezin ditzakete horiek irrazionaltasun suntsitzailearen muturrera eramane. Europaren historiak erakusten du Elizak zenbat ikas zezakeen pentsamendu modernotik, eta zenbat sufrimendu saihesti ote zuketenen pertsonen askatasunari kontra egin ez balio. Vatikanoko II. Kontzilia arte itxaron behar izan dugu **askatasun** horien guztien aitortza ikusteko.

Bitxia bada ere, Jesusen jarrera ekumeniko eta unibertsal hori bere ikasleentzako hainbat eskaera ezarri baino lehen ageri da. Gaizkian ez erortzeko eta eskandalurik ez emateko, hau da, besteak ez erorarazteko, prest egon behar da pertsonarengan dagoen gaizkia errotik ateratzeko, horrek zentzugabea eman badezake ere. Kontua

ez da oina edo eskua moztea, edo begia ateratzea, baizik eta **gaitzarekin konpromisorik ez sinatzea**. Gaizkiak geure barruan ditu konplizeak, eta horri egin behar zaio gerra, ez gu bezalakoak ez diren pertsona onei. Egiaren, ontasunaren, justiziaren eta maitasunaren bila dabiltzan borondate oneko gizaki guztiekin egin behar dugu bat. Santiago apostoluak bete-betean asmatu zuen pobreak esplotatuz bidegabeko mundu bat eraikitzen duten aberatsen egoismoa salatuta (St 5,1-6).

Eukaristiaren inguruan eraiki dezagun mundura zabalik dagoen elkarte, Espirituaren ekintza askatzailea ospatzen duena, eta ireki ditzagun gure bihotzak Jainkoak arraza, erlijio eta kultura askotarikoen bidez ematen digun dohain dibertsitate handia hartzeko.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Jaunak bere Eliza onbidean zuzen dezan eta fededunen zerbitzura biziko diren bokaziodunak falta ez dakizkion. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jaunak zuzentasunaren dohaina herri arduradun guztiei eman diezaien, giza familia osoaren zerbitzura bizi daitezen beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoaren bila bizi direnek izan dezatela bilatzen duten egia aurkitzeko dohaina. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gaudenok, Eukaristiaz berriturik eta elkar adoreturik behartsuenei lagunduz aurki dezagun egiazko poza. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, beti ematen dizkiozu Zure herriari Ebanjelioa hots egingo duten profetak; isuri Zure Espiritua Elizarengan, fededun guztiek, Zure dohainez aberasturik, ausardiaz zabal ditzaten munduan Zure egintza miragarriak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Sakramentu honek, Jauna,  
gure gorputz-animak berri ditzala,  
Kristoren heriotza iragartzen dugunok  
Haren nekaldian bezala  
Haren piztueran ere parte izan dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**